

Nire bizitzaren sortzaillea zeruko aita da, nire arnasaren euslea Jaungoiko berbera. Esker utsean guztia artu neban, ta maitasunez darraikit Jaungoikoak on egiten. Beraz norena naz? Nori zor dautsot nire nai-bizia? Gizon aundiarena da artu dan mese-

dea ezagutzea ta norberak eskerrak emotea. Mesedegilleaz lotsatzea, edo da txikerkeria edo gizontasun gitxikoa izatea.

Zurea naz zeru-lurren Egillea; «egin bedi nigan zure borondatea». Egieder



Salamanka'ko ikastetxean ikasle

Ander deunaren karmeldar ikastetxea. Etxe zabal sendoa da, uriaren egoalde guenean tokitua. Tormes'ko urak, Gredos ton-tor goi edurtuetatik beera jatsiz nekatuta lez, ixil-ixil igaroten dira, lotsa ta begirunez komentuko orma ondoan zear. beingoan sartzeko zarrapastaka erromar zubia- ren ogei ta sei begietatik. Aurrez-aurre, urez bestekaldean, zumar zuri ta altzak dagoz. katedralako torretxoan espaz ta inbidiz antza, eurak baiño txairo ta lerdnago islatzen diralako ibaiaren ur geldian. Argizko gozotasun hare atsegin batek artzain-giro olerkitsuaz ezarten dautso inguru guztiari.

Bestaldetik, onen aurka lez, goian, eleiz nagusi edo katedralak, Ikastetxeak eta Anaia ikasgu illunak laututako azoka-zeian bada zarata ta ozenagotuz doian iskanbilla. Ikasle horbor dago, ta geratu bage geiago ta geiago datoz. Ara doiazan kale mutur guztietatik datoz leologuak, idazlariak eta eritilariak, komentu bakotzak Ikastetxera hialduta: Bartolome, Esteban, Mertzedeke, Prantzisko deunaren komentu ta lekaide-xektako ikasleak... Itxura guztietako arpejiak ikusten dira, kolore guztietako jantziak: domekarren jantzi zuri-baltzak, pran-ziskotarren kapa arreak, eleizgizonen sota-

na baltzak, bekadunen jantzi luze kolozta ta adabakituak. Guztion artean dotore agiri da karmeldar ikasle aldra baten kapa zuria, San-Ander ikastetxeakoak dira, Tormes ibaiak gozo ta otzan urrungatzen dauzan orma barruan hizi diranak.

Euren artean dago Joan Yepes be. Egun baten, Medina'ko geixotxean mandatarikoxkor zalarik, Karmen'go ordenara dei egitean barne-abots misteriz betea entzun eban; eta Medina'ko karmeldarren komentuan profesu egin eban oraintsu, 1564'guko azken udan bertan. Buru argia dala erakutsi dan, batez be here begi bizi sakonetan, eta ordenako nagusisk, ikasketak ondo egiñik, jakintza guztietan duinkiro jantzia izan dedin saiatzen dira. Ortarako etorri da Salamanka'ra.

Egunero igoten ditu, San-Ander'ko amar amabi ikasle lagun, ibaiaren eskoletzetik Ikastetxeko plazara doiazan kale estu ta erripatsuak. Danak daroaz liburuak ta ikas-apunteak galtzarpean, eta ikastolako azken-azalkizunak dabez autu-gai, edo aurreko artean euki ebezan eztabaida agirien ondorenak. Zeitxoan edo Ikastetxeko barne-barre-txoari jira emoten dautson aterpe laukian eskolara sartzeko zain dagozan bitartean, ba-

datoz elduaz irakasleak be: Lenengokoa, Kristo Gorputza'ren Mantzi aita, San Esteban'ko irakaslea; abiltar Kristobal Vela apai-za. Eskoto'rena irakasten dauana; Lenzina, Gergori Gallo, Domingo Soto... Eta, azkenik, agiri da, urduri samar, Leon'go Luis aitaren iduri apaiña, ikasleen artean irribar teratsua biztu eragiten dauana. Batzuk, olerkaria euren endotik igarotean, aren ber- teoak esaten ixil-mixilka. A, irrikoi, bere irakastera sartzen da, ikasle guztiak arra- paladan atzetik ditula.

Ikastetxeko torre-orduariak ikastolara sar- tzeke ordua jorik ots dagianean, solairu edo aterpeak arimarik bage geratzen dira. Ba- kar-bakarrik, eta erdi-illkik, kanporaiño el- tren dan maixuen abotsa edo-ta Nagusiaren agindak betenzo ta ingurukoak zaintzen di- ran jagole gaztearen oinkadak entzuten di- ra: besterik ezer bere ez.

Ikasketa amaitu ondoren, Joan Anaia San- Ander kolejiara biurtzen da. Sartaldeko ate- tik izten dau Ikasgua, ate andi ta latz-itxu- zkoa, sartaldekoa arrigarrira landu ta pi- teitua dan legez; kale estu bat artzen dau katedralaren ezkerretik, eta here lagunakaz Tormes'ko ur-ondoraiño jasteu da polito- polito.

A, komentuan, bizitza latza dago: otoitz, burua ukatu, ikasi. Bere inguruan dana da txiro, lander ta gordiña; geleak txiki, eleiza- ko altara nagusira leiotoxo kaskar bat dau- kala; landu bako olezko arasa, teologi ta gogo-jakintzazko liburuak bertan: Arcopa- gita'ren *Urtzizti Estaria*, Esakunetako Libu- rui Juan Bakon'ek egindako Azalpenak, Akino'ko Tomas Deunaren eta Bolonia'ko Mikel'en idaztiak, Flos Sanctorum. Idazteu- na... Lo egiteko oaska bat dauko agotzez betea, eta ate ostean dingilizka espartzezko jantzi estua, zurdutza ta odolotutako zigor- gailuak. Baiña geleak ba-dau beste leio bat be erre kara emoten dauana, ta andik yator- koz pozutzen daben argi-zerrenda ta ur-ots leunak Gela ortan alkartzen dira. Joan Anaiaren ariman lez, jakinduria, laztasuna, otoitza ta olerkia.

1567'ko uda-oporrek dira. Ez da eskola- rik. Salamanka'ko kaleak galdu dabe ikas- leen barbailla bizia. Ikastetxeko leorpeak maurtu dagoz, iñor barik; ikasgelak, itxi ta mutu, aiubat joan zarataz nekatuta antza, atsedenearen mende dirudie. Eguzkia dizdi-

tsu. Kaleetako autsa txigortuz doa, ta etxe- etako arri urreztatutak burdin-islaz jaxten dira. Anaia ikasguko larrainean azpiko ar- losa zabalak zutoin jagi ta oldozkorren kon- tra jaurtzen dabe eguzkiak zoru gainean jausten izten dauan sua. Tormes'ko onda- rrak, egarbera, ia bere ur guztiak zurrupa- tzen dabez; bitartean, bere ur-ertzetan, Ge- zi (Flecha) deritxon landetxean, kilometru batzuk ur gora uriaren sortaldera, Frai Luis'ek, ikasgelako ikasgai-arazoa albora itxi ta atsedenduz, *Kristo'ren Izenak* gertatzen ari da, bai ta here oda *Landako bizitza* abes- tu be.

Frai Joan'ek be itxi dau Salamanka. Me- dina del Kanpo'n bizi da. Andik urten or- dukoxe mezakotua zan; Pedro Alvarez Men- dotza'k jarri eutsozan eskuak zeremoni gu- ren orretan, an eleiz nagusi zarrean, Gallo'- ren torreko maskor antzeko ginga lerdena- ren azpian, erroma-eratik gotikerako arriga- rri aren azpian. Eta burat-eundegi baldarrak Medina'n jarraitzen dauan bere amaren au- rrean leuengo meza kantetara etorri da.

Santa Ana'ren eleizan da. Lau urte au- rrerago, antxe bertan, altara nagusi lorez ta argiz betearen aurrean artu eban Joan Ye- pes'ek Karmen'go jantzia. Egun atan lez, gaur be lorak ta argiak dagoz altaran. Eta intzentsu lurruna be izango da. Baiña orain- goan Frai Joan'en esku dardaratiak bota- ten dabe zidarrezko ontziko txingarretara.

Meza amaitu ta meza-emoilleanaltarako maillak beera jatsi danean, ango eleiztar guztiak dakuse aren arpegian jatorrizko errubagetasunaren ditzira goxo bat. Ainge- ru antz eraso dago; aren begiak umeen briz- briz higuna dabe. Bekokitik sua jaurtzea paltu yako bakar-bakarrik, Sinai'tik jatsi za- nean Mois'ek lez.

Bizkargi

